

23. LITERATUR LEHIAKETA

orioraia

SARIA

IPUINAK

1. SARIA: **San Sebastian eguneko gaupasa**
Iñaki Iturain
 2. SARIA: **Basoko amona eta otsoa**
Josu Galdos
 3. SARIA: **Cerlari handia**
Ane Etxabe Usandizaga
- Accesita: **Akordeoia**
Alazne Arruti
- Accesita: **Ospea lortzeko bidea**
Arantzazu Otaegi

OLERKIAK/BERTSOAK

1. SARIA: **Naizen desertuan**
Josu Galdos
 2. SARIA: **Bertso berriak Errikotxiako kuadrillari jarriak**
Iñaki Iturain
 3. SARIA: **Ibilerak**
Alazne Arruti
- Accesita: **Udaberriko lore**
Ainhoa Mateos
- Accesita: **Potoloaren bakardadea**
Garazi Urretabizkaia

San Sebastian eguneko gaupasa

Iñaki Iturain

Aurtengo San Sebastian gauean gaupasa egin nuen. Aspaldi egin gabea nintzen; ez zaharra naizelako, gaztea ere ez naiz baina: 50 urte ditut; zero gradu egiten duenean bezala, ez bero eta ez hotz.

Ez dut parranda askorik egin nire bizitzan. Jaio nintzenetik elbarria naiz gerritik behera. Aulki gurpildun bat dut eguneroko laguna eta, ulertuko duzunez, ez da erraza era horretan gauez jende artean ibiltzea. Harekin ibiltzen naiz atzera eta aurrera, huraxe dut adiskide kuttuna. Kostatu zitzaidan hura gidatzen ikastea; ez da erraza, niri behintzat ez zitzaidan samurra egin, baina ikasi nuen eta orain berak eramaten nau batetik bestera. Nik agindutakoa zintzo demonio betetzen du, nahiz eta nik esaten diodan ez nauela berak ni eramaten, baizik alderantziz, nik eramaten dudala bera nik nahi dudana tokira. Purrustaka ibiltzen gara biok, baina adiskide minak gara. Asko maite dut.

Izena ere eman diot: Rocinante da nire zaldi maitea; ez du irrintzirik egiten, baina zaldia da. Nik halakotzat dut. Badakit lau hankako baten gainean ezingo naizela ibili, ni bi gurpileko zaldiaren gainean ibiltzen naiz eta ez dut inoren inbidiarik, zer gero! Ziklista batzuek harro asko aurreratzen naute bidegorrian-eta, baina bizikletak eraman beheraka bakarrik eramaten ditu, gorakoan alderantziz da: berek eraman behar bizikleta; Rocinante, berriz, berak eramaten nau beti, gora, behera eta ordekan. Ez dit huts egiten behin ere.

Bai, badakit, Rocinante ez dela izen euskalduna, baina euskal literaturak ez dit zaldi-izen ezagunik eman eta Cervantesi hartu nion. Tira, egia esango dut, Rocinante bataiatu nuenean, ez nuen euskaraz irakurtzen, eskolan dena erdaraz ikasi genuen eta ez dut ikasi euskaraz irakurtzen, oso zaila egiten zait. Ez dakit euskal literaturan zaldi-izen ezagunik ba ote den, baina nire zaldiarentzat izen egokia da Rocinante, nik ere, Don Kixotek bezala, erroten kontra borrokan ibili behar izaten baitut askotan.

San Sebastian gauean horixe gertatu zitzaidan, errota guztiak kontra jarri zitzaizkidala, beren hegala

nire bidean zabal-zabal jarrita, ni ez pasatzeko. Baina hori egunaren bukaera izan zen. Aurretik gauzak ondo joan zitzaizkidan. Ondo ospatu nuen San Sebastian eguna. Donostiara egunero joaten naiz, goizean joan eta arratsean etorri. Han ematen dut eguna, bazkaldu ere bertan egiten dut. ONCEren postua daukat Abenidan. Hantxe pasatzen ditut lanorduak, kupoiak saltzen, egunero besteei zortea eskaintzen, saria eman gutxitan eman diet baina. Behin bai, behin hirugarren saria banatu nuen Donostian; baina tira, ez naiz hori idazten hasiko, gaur ez dut sari harena azaldu behar, San Sebastian egunean egin nuen gaupasa baizik.

Ez dakit zerk eragin zuen gehiago egun hartan Donostiako festara joateko erabakian. Batetik, aurtengoa, *Egun hartan ni han izan nintzen* esan ahal izateak harrotasuna ematen duen horietakoa.

Seguru asko, bi arrazoiek bat egingo zuten nik erabaki nezan egun hartan gaua Donostian ematea. Egunerokoan, goizeko trenean joan eta arratsekoan etxeratzen naiz. Orioko estaziotik 24 minutu behar izaten ditu trenak ni Donostiara eramateko; beste horrenbeste, etxera ekartzen nauenak. Ondo, aspaldiko urteotan trenak pulamentuz dabil, puntual eta azkar, eta, gainera, eroso da: orain elbarriorantz propio jarritako eremua dago. Tira, elbarriorantz, haurrentzako kotxeentzat eta bizikletentzat, baina aitortu behar dut guk lehentasuna dugula. Ez dugu arazorik izaten.

Goizean etxetik trenera eta arratsean trenetik etxera ia denbora gehiago behar izaten dut trenean ematen dudana baino. Estaziotik urruti bizi naiz, Anibarko Portua izena duen auzoan, kilometro eta erdira-edo. Kilometro eta erdi bi bider hiru kilometro dira; eta zaldi mekanikoaren gainean, ba, denbora behar izaten dut mugitzeko: trenetik jaitsi, aszensorea hartu,

lehenengo solairuan atera, errepidearen gaineko zubitxoak igaroz Orion sartu, berriz deszensorea hartu (bigarren aldiz jaitsita, ez dakit zer ematen didan berriro aszensore deitzeak), ezkerreko espaloitik erriko zubia pasatu, zubia gaindituta semaforoaren berdeari itxoin, eskuin aldera pasa eta, halako batean, errio ertzeko paseora iritsita, lasai joaten naiz etxera, errioari begira, garaian garaiko erriko biztanleei erreparatuz: kaioak, neguko angula zaleak, urte guztiko arraunlariak, uda garaiko gaztetxo uretan murgildu zaleak... Ikuskizun ederra ematen digu ibai horiak, Oriak. Bai horixe! Behin errio ertzeko paseora iritsita, di-da batean ailegatzen naiz Anibarrera, nahiz eta, erlojuari begiratuta, trenak Donostiarako behar dituen 24 minutuak gaindituak izaten ditudan behin baino gehiagotan. *Anibalen elefanteak baino mantsoago* txistea egiteko tentazioa ematen dit.

Goizekoa, etxetik estaziorainokoa, ez da hain atsegina izaten, urteko sasoi askotan ilunpetan joaten naiz, artean eguna argitu gabe, errioak ez dit giza ikuskizunik eskaintzen, nahiz eta errioari aitortu behar diodan neguko goiz hotzetan askotan egokitzen den behelainoak giro misteriosu iradokitzailea eskaintzen didala, Laboaren Baztango lurra bezala: *Maite ditut, maite, gure bazterrak lanbroak izkutatzen dizkidanean, zer izkutatzen duen ez didanean ikusten uzten, orduan hasten bainaiz izkutukoak nire baitan pizten diren bazter miresgarriak ikusten*. Bai, Laboa maite dut, haren kantuak askotan etortzen zaizkit gogora, laburrago egiten dizkirate etxetik trenerako joan-etorriak.

Aspertuta nago lagunei esaten zergatik hartzen dudan trena eta ez autobusa. Ez daukat lagun askorik, baina badut bat besterik bururatzen ez zaiona, ikusten nauen bakoitzean galdera bera egiten dit: *Zergatik ez dek hartzen autobusa?* Orain ez diot erantzuten, aspertu nintzen. Hark ederki asko daki beldur hartu niola autobusari. Behin auto batek harrapatu egin ninduen. Ez zidan min handirik eragin, baina sustoa oraindik barruan sartuta daukat. Donostiatik datorren autobusak errepidearen beste aldean uzten nau eta handik nire aldera pasatzea abentura bat zen: ez zegoen ez semafororik ez zebra-biderik (orain jarrita dago baina). Erne ibili behar izaten nuen eta, automobilik ez zetorrela iruditzen zitzaidanean, zaldia martxan jarri eta ekiten nion 8 metroko zabalera duen kamioari. Behin automobil batek harrapatu ninduen; ez zidan kolpe handirik eman, baina automobila freno sakatzen ari zela gainera

nola zetorkidan ikusiz pasatu nuen izuak, segundo bat-edo iraun zuen ikara hark, nire baitan sortu zuen zirrara ez zait ahaztuko sekula.

Geroztik ez dut autobusa hartzen, trenez joaten naiz. Auto bat gidatzeko ez naiz gauza, eta erosteko dirurik ere ez daukat. Beraz, horixe egin nuen 2016ko urtarrilaren 19ko arratsaldean: motxila kemenez ondo kargatu eta Donostiara, jendetzaren artera. Anaiarengana joan nintzen, Donostian bizi da aspalditik. Hark ez du zaldiaren beharrik bizitzeko, batetik bestera ibiltzeko. Anaiak suertea izan zuen jaiotzako loterian. Mutil zintzoa da, zoragarria, asko maite nau; nik ere bai hura. Asko laguntzen dit, egun batzuetan ia Rocinante adina. Berak konbentzitu ninduen Donostiara joateko, bestela ez nintzen joango. Egun hartan egunerokoaren alderantziz egin nuen, goizean joan eta arratsean itzuli beharrean, arratsaldean joan nintzen, eguna jai hartuta.

Anaia zain nuen estazioan. Geltokitik aterata, etxean prestatuta zeukan afari goxoa hartzera joan aurretik, baxoerdi bat hartu behar genuela eta taberna *chic* batera eraman ninduen. Hala esan zuen berak, uste dut. Kanpoan gelditu nintzen; jende asko zen tabernan, eta Rocinante eta biok ez ginen kabitzen han. Zaldi handiegia daukat horretarako. Baina kanpoan ondo egoten zen. San Sebastian giro nabarmena zegoen kalean ordurako, giralda txuri-urdinak nonahi, sukaldari-txano txuri luzeak festazale batzuen buru gainean, eta danborrada-doinua taberna barrutik.

Tragoa hartuta, anaiaren etxera joan ginen. Ez da urruti bizi. Oso ondo atonduta zeukan mahaia. Guk ez genuen angularik izan, baina bai afari goxo askoa. Nik ez bezala, esku ona du anaiak sukaldarako, amari ikasi zion. Batek behintzat ez du guztiz galdu gure ama zenak pilatu zuen gastronomia-jakinduria hura guztia! Postrea mahairatzearekin batera, telebista piztu zuen anaiak, ETB1, danborrada telebistaz ikusteko. *Normala*, pentsatu nuen nire baitan, *Nirekin nola joango da ba inor orain Parte Zaharrera, lehen tabernan ez baginen kabitzen, nola arraio kabituko gara orain Alde Zaharrean!* Telebisioa piztu eta hantxe egon ginen anaia eta biok koilara banarekin plateraren gainean Sarriegiren doinuak sortzen. Etxean entzun genituen Gaztelubidekoen danborren rataplanak.

Ordu bata aldean atera ginen kalera, giro ona zen Amara Zahar aldean. Gu atera eta segituan topo egin genuen auzoko danbor joleen konpartsarekin. Ez

zeuden jantzita telebisioan ikusitakoak bezain dotore, baina umore ona zeukaten behintzat. Gustura egon nintzen haiei begira. Urte asko ziren ez nuela danborrada bat zuzenean ikusten. Asko. Burutik ideia xelebrea ere pasatu zitzaidan orduan: *Nik ere jo behar diat noizbait Donostiako danborradan*. Zergatik ez? ONCEk ezin al du danborrada atera haientzat lan egiten dugunokin? Gauza bat badakit seguru, kantinera behintzat ez naute jarriko ni. Geroztik ahaztu zaizkit kontu horiek, uste dut afaritan edandako ardoak ekarri zidala gogora ideia txatxu hura.

Nahiz eta eguna lanera joan gabe lasai pasatua nuen, nekatzen hasita nengoen eta anaiari esan nion ordu biak hamar gutxitako trena hartuko nuela, niretzat nahikoa zela. Anaiak, hala ere, trago bat hartzeko denbora ematen zigula joan aurretik eta bere lagunak elkartzen ziren tabernara joan behar genuela. Horixe egin genuen. Hantxe zeuden bere lagunak, umore onean, kantari. Jende ona, jatorrak. Gogoia ematen zidan han gelditzeko, aspaldiko partez parrandatxoia egiteko, baina nora joan behar genuen Rocinante eta biok. Ez, ez zen plana. Anaiak lagundu zidan estazioraino. Bi musu, eskerrak eman eta agur, hurrena arte. Esan nion berak segitzeko lagunengana eta gau ona igarotzeko, nik hobe nuela etxeratzea.

Nekatuta iritsi nintzen Oriola, zehatz esanda erdi lo, goizeko ordu biak eta laurden ziren; baina ez nintzen despistatu, nire geltokian jaitsi nintzen. Ez zen lehenengo aldia izango, lehen ere joana naiz urrutia, lo geldituta; behin Zumaiara esnatu eta atera nintzen trenetik. Oraingoan ez, nire geltokian atera, txartela fitxatu, pasabide estua igaro, Rocinante justu-justu kabitzen da han, eta aszensoreko botoia sakatu nuen. Orduantxe konturatu nintzen zer zetorkidan gainera: ez zebilen, atea ez zen zabaltzen. Ordurako, bakar-bakarrik nengoen estazioko gaueko bakardadean; ni bezala trenetik atera ziren bizpahiru bidaiariak oinez jaitsiak ziren eskaileretan behera. Eskerrak mobilari! Telefonoa hartu eta Euskotreneira deitu nuen. Ia bi minutu tardatu zuen gizon batek hartzen, normala, nik ere horixe egingo nuen ordu hartan, lo. Segituan etorriko zela konpontzailea, itxoiteko.

Segituan-segituan ez zen etorri, baina ordu erdira-edo han nuen. Eskerrak ez zen gau hotza. *Gabon*, hark; *Gabon*, nik. Lanari ekin zion, eta berehala antzeman matxurak ez zuela konponketa errazik, denbora dezente beharko zuela hura bere onera ekartzen. Berak deitu

zuen Euskotreneira. Handik mezua: hurrengo trena hartu eta Zarautza joateko, han taxia izango nuela zain. *Hau dek marka hau, joan hadi orain Zarautza!* Baina beste erremediorik ez nuen.

Hurrengo trena hirurak eta laurdenetan iritsi zen. Hala, Zarautza. Trenean, gazte parrandazale batzuk etxera bueltan eta ni. *Tira, ordu laurden batean etxean*. Hala pentsatu nuen. Estaziotik atera, han ez dago beheragailua hartu beharrik, eta han inor ez, ez taxirik ez besterik, ezta inor ere. Eskerrak ateri zen! Eta ni han, bakarrik, ordurako moskeatzen hasia, *Baina zer da hau?* Berriro deitu nuen Euskotreneira. Handik barkatzeko, baina ez zuela lortu taxirik, itxoiteko pixka bat eta Zumaiako geltokiko langile bat etorriko zitzaidala laguntzera.

Gaua konplikutzen ari zen, luzatzen ere bai. Amorrua nagusitzen hasi zitzaidan nire baitan. Horrelakoetan Rocinanteekin hasten naiz hizketan, hark bakarrik daki antzeko zenbat pasatu behar izan ditudan nik. *Baina gaurkoa marka guztiak gainditzten ari dek*. Amorruek ezinegonari utzi zion lekua. Donostiakoa ez bezala, Zarauzko gaua isila zen, txintik ere ez inondik, eta burua lanean hasi zen, txarrerako, *Eta baten bat agertzen bazait?* Periodikoak berri txarrez beteak ateratzen dira egunero: lapurretak, bortxaketak... eta ni han, bakar-bakarrik, gauaren erdian, burrunba eta zarata ez dira onak, baina gau iluneko erabateko isiltasun hori ere...

Ordu erdira-edo ailegatu zen Euskotrenekoa —ordurako barruan nagusitua zitzaidan kezka—; baina ez zen agertu nik uste nuen bezala kotxean, ez, trenez etorri zen. Esan zidanez, nirekin egotera autobusa etorri bitartean. Bai, autobusa etorriko omen zen, Aizpuruako autobusa, ni hartu eta etxera eramateko. *Ezta pentsatu ere!* Badaukat taxilari ezagun bat, eta premia izan dudanean hari deitu izan diot. Hark beti erantzuten dit, eta berak ezin izan duenean, beti bidali izan dit beste norbait.

Mobila hartu eta hari deitzen hasi nintzaion. Zumaiatik etorritako gizonak, ezetz, ez deitzeko inori, autobusekoarekin hitz eginda zeudela eta laster izango zela Zarauzko estazioan. Mobila gorde nuen. Eta hantxe segitu genuen, zumaiarrak eta biok. Zain. Beste ordu erdi bat pasatuko zen. Halako batean, haren telefonoak jo zuen. Gaueko isiltasun hartan, ia lo seko geratzen hasita nengoen hartan, susto handi samarra eman zidan. Batez ere, deia bukatuta zumaiarrak esan

zidanean gaizkiulertu bat egon zela eta ez zela autobusik etorriko. Nazkatzen hasita nengoen, Zumaiatik etorritakoak ez zuen errurik, taxilari ezagunari deitzeko ere beranduegi zen, hura ez zen ordua, eta erabakia hartu nuen: hurrengo trena hartu eta Donostiara joango nintzen, anaiaren etxera, han ez nuen izango arazorik lotarako.

Hogei minutura ailegatu zen trena. Sartu eta Donostia aldera, zumaiarrari agur esanda. Oriotik pasatzean, leihotik aszensore aldera begiratu nuen, ez nuen konpontzailea ikusi. Trena bostak eta erdietan iritsi zen Europako kapitalera. Jaitsi eta, anaiaren etxe aldera bideratzeko estaziotik ateratzen hasi nintzenean, Euskotreneko beste enplegatu bat etorri zitzaidan. Sentitzen zuela gertatutakoa, eta barkatzeko, baina Orioko matxura ordurako konponduta zegoela eta lasai joan nintekeela etxera. Eta zer esango nion, ba, nahiz eta ordurako neka-neka eginda, loguretuta, gose-tuta, egarrituta eta batez ere nazkatuta egon? Langile xume hark, barkamen eske haiekin, ia pena handiagoa eman zidan nire buruak ematen zidanak baino.

Anaiari sustoa ematen hastea baino hobe nuen etxera joatea eta horixe egin nuen, hurrengo trena hartu, seiak eta hogeikoa. Zazpiak laurden gutxitan iritsi nintzen Oriora. Aitortu behar dut beldurrez joan nintzela aszensorera, trenetik jaitsita, Alfred Hitchcock-en pelikula batean baino tentsio handiagoa nuela aszensorearen botoia sakatu nuenean. Bost ordu lehenago ez bezala, oraingoan zabaldu egin zen atea. Tentsioak eta urduritasunak jarraitu egin zuen nire baitan, harik eta kalera ateratzen arte. Rocinanteren bi hankak aszensoretik kanpoan ikusi nituenean, orduantxe egin nuen bizitzako hasperenik luuuzeeena. *Ailegatu haiz! Laster etxean izango haiz!*

Eta kito: idatzita dago gaupasarena. Behingoz. Roci-
nantek eta biok lehen ere izan ditugu horrelako
abenturak, borrokatu gara hainbat errotarekin;
ONCEkoak hamaika ikusteko jaioak baikara. Sikiera
Jamaika ikusteko jaioak bagina! Baina danborrada
gauekoak marka guztiak hautsi zituen, eta askotan ekin
diot ordukoa idazteari. Aurrena, kexa bat idatzi nahi
izan nuen, Euskotren konpainiari bideratzeko; amorrua
ateratzeko helburua zuen karta hark, eta nire ohorea
eta eskubideak defenditzea, Don Kixoterena eginez.
Karta hura ez nuen inoiz bidali, idatzi ere erdizka, hasi
orduko zerbaitek atzera eragiten zidan.

Gero, gutuna prentsara bidaltzeko asmotan idazten

hasi nintzen; ez nago seguru, baina uste dut beste gutun
horrek mendekua zuela helburu. Bigarren gutun horrek
ere ez zuen argia ikusi. Gero, pentsatu nuen 2016ko
urtarrilaren 20ko bidaia Berria egunkariak urtero
antolatu ohi duen bidaia-kroniken lehiaketara bidaltzeko-
modukoa zela: *Bidaia haluzinanteagorik non?* eta
zalantzan ibili nintzen bidali ez bidali; baina, gero, nor-
baitek esan zidan aurreko urteko irabazleari eman
zioten saria Marokoko mendi altuenera igotzeko aukera
izan zela. Horren berri jakiteak erabat atzendu ninduen
istorioa Berrian aurkeztetik, ez dut nire burua ikusten
nire zaldiaren gainean mendi bat igotzen.

ONCEko lagun batek eman zidan ideia, San
Sebastian gauekoa kontatu nionean: munduko marka
hautsi duzu, Donostiatik Oriora bost ordutan, alajaina!
Eta berehala etorri zitzaidan gogora: *Arrazoi dik, nik
ere marka jarri diat, eta zer gero, haizatu egingo diat,
zabaldu, besteek ere horixe egiten ditek: batek, egunero
igo zela Kukuarrira, urteak dituen egun guztietan;
besteak, 24 ordu sokasaltoan egin behar zituela; beste bik,
txandaka, 24 ordu ergometroan, gelditu gabe; beste batek
bi minutu azpian igo behar zuela autoan Andatzatik
Aiara...* Beti izan diet inbidia: Karkarakoak, DVko
kronista, denak haien atzetik, haien arrastoan.

Orain asko ez dela irakurri nuen Karkaran, garai
batean, errepiderik ez zen garaian eta Donostiatik
Oriora Igeldotik barrena etorri behar zenean, XX.
mendearen hasiera arte atzera eta aurrera ibili zen dili-
gentziak hiru ordu behar izaten zituela Donostiatik
Oriora. Nik trenez, bost.

Erabakita daukat: aurtengo urtarrilaren 19ko gau
hartan gertatu zitzaidana herritarrei kontatuko diet,
eta, horretarako, Udalaren lehiaketara aurkeztuko dut
kontakizuna. Egia aitortuko dut: horretan ere anaiak
lagunduko dit, hark ondo idazten du euskaraz, eta
badakit gustura egingo duela, niri laguntzeagatik.
Herriko literatur lehiaketak aukera paregabea ematen
dit istorioa paperean idatzita zabaldu dadin. Ez da
ipuina, baina istorio kurioa da, xelebrea. Seguru
nago gehienek ez didatela sinetsiko, pentsatuko dutela
nik San Sebastian gauean, ohean lo goxo-goxo nengoela,
egindako ametsa dela dena, edo handinahikeriatan
dabilen elbarri gizajo baten pitokeriak... Baina, hara,
nork bere buruari barre egitea oso osasungarria omen
da, eta horixe egingo dut: barre egun hartan gertatu-
takoari. Terapia ona izan da niretzat. Eta horixe espero
dut Euskotrenekoengandik, San Sebastian gaueko gau-

pasa zoragarri hartan eman zidaten laguntzari barre egingo diotela, eta, batez ere, ez direla haserretuko orain kontatu egin dudalako.

Kontakizuna literatur lehiaketan saritua baldin bada, Udalak argitara emango du Karkaran; eta herriak

jakingo du nik ere marka hautsi nuela: trenez Donostiatik Oriora bost ordu, Zarautzik eta Donostiatik pasatzen den bidezidorretik barrena: XXI. mendeko trenean XIX. mendeko diligentzian baino mantsoago.

Basoko amona eta otsoa

Josu Galdos

Leire autoan zihoan. Haurdun zegoen; lau aste geratzen zitzaizkion haurdunaldia osatzeko. Bere haurra laster jaioko zen, irrikaz zegoen, eta Leire bere haurtxoaren aurpegia irudikatu nahian zebilen. Etxera iristeko gogoz zegoen; nekatuta sentitzen zen.

Bere etxea basoaren erdian zegoen eta, bertara iristeko, bide estu bat igarotzen ari zen basoaren erdi-erditik. Bidea ez zen erraza, baina Leirek mila aldiz egina zuen eta lasai zihoan. Bihurgune bat pasa eta ezusteko batekin topatu zen: zuhaitz zahar eta izugarri bat bidearen gainera erori zen, eta ezin zuen aurrera egin... Autoa gelditu eta burua bolantearen gainean pausatu zuen etsipenez; akitua sentitzen zen, eta bizkarreko min handia sentitzen zuen. Bazekien baso hartan telefonoa alferrikakoa zela; baina, hala ere, senarrari deitzen saiatu zen. Ongi zekien bezala, ordea, alferrikako ahalegina izan zen.

Etxera iristeko kilometro pare bat baino ez zela geratzen pentsatu zuen eta, beste aukerarik ez zegoela pentsatuz, autotik jaitsi eta etxerantz abiatu zen. Bidean aurrera egiteko, zuhaitz izugarri hori igaro behar zuen eta, bere sabel handiarekin, bazekien ezinezkoa izango zitzaiola gainetik igarotzea; hortaz, basoan barneratu zen, zuhaitzaren ipurdia aurkitu eta bestaldera pasatzeko ideiarekin. Zuhaitzaren enborra oso luzea zen. Leire harriturik zegoen: ibili eta ibili eta zuhaitzaren ipurdiraino ezin iritsi. Enborra gero eta lodiagoa zen; ipurdiak ezin zuen oso urruti egon, baina Leire kezkatzen hasia zen: gaua laster zen gainean eta oso nekatuta zegoen. Bere egoeran onena etxean eta etzanda egotea izango zela pentsatu zuen. *Zertarako atera naiz gaur etxetik? Zer nolako tontakeria egin dudan, eta dena izozki bat jateko gogoa sartu zaidalako...* Eta enborra gero eta lodiagoa,

eta Leire ezinean... Hankak indarrik gabe zituen, eta esertzeko beharra sentitu zuen. Arnasestuka eta izerditan, enborraren laguntzarekin, lurrean eseri zen eta, eseri eta segituan, bere harridurarako, izugarritzko oinazea sentitu zuen alu aldean. *Ez, oraindik ez! Itxoin, maitea... Hemen ez...*

Leire oihuka hasi zen. Bazekien senarra laster iritsiko zela eta, autoa eta zuhaitza ikustean, azkar aurkituko zuen. Kontrakzioak, baina, gero eta indartsuagoak eta gero eta sarriago zituen eta, hori gutxi balitz, ura atera zitzaion. Galtzak ur beroz nola bustitzen ziren ikusi zuen aho-zabalik, gertatzen ari zena sinetsi ezinik. Bere lehen haurra zen eta bazekien bere amak, izebek eta amonak oso erditze azkarrak izan zituztela, eta berea ere azkarra izango zela sentitzen zuen. Mina jasangaitza iruditzen zitzaion; ezin zuen postura egokia hartu, eta konortea galdu behar zuela pentsatu zuen. *Ez, Leire, ez! Eutsi! Ezin duzu konortea galdu!* esan zuen oinaze eta malko artean.

Otso bat azaldu zen orduan. Leire oihuka hasi zen: *Ez, ez, ez! Zoaz hemendik! Utzidazu bakean!* Leirek burua galdu behar zuela pentsatu zuen. Dena amesgaizto bat zela ere pentsatu eta desiratu zuen. Mina gehiegizkoa zen eta, hori nahikoa ez, eta otso bat zelatan... Nola babestu behar zuen bere haurtxoa eta bere burua egoera hartan?

Otsoak, baina, buelta erdia eman zuen Leireren zorionerako. Azkar asko itzuli zen, ordea, eta haren atzetik norbait zetorrela sentitu zuen. Leirek otso gehiago izango zirela pentsatu zuen. Ongi zekien baso hartan otso asko bizi zirela. Inoiz ez zioten deus txarrik egin, baina sekula ez zen horrelako egoera batean egon. Baina ez, otsoaren atzetik ez zetorren beste otsorik,

baizik-eta amona zahar bat, ile luze-luzea zuen amona zahar eta argal bat, lurraren koloreko azala zuen amona erdi biluzi bat. Amonak begitartea laztandu zion otsoari eta, gero, Leireri begiratu zion begietara. Leire ikaratuta zegoen, baina mina zen okerreana. Jada ezin zuen gehiago. Hil egingo zela pentsatu zuen, eta amona eta otsoa benetakoak ote ziren ere galdetzen hasia zen bere buruari. Jada burua galtzen ari zela ere pentsatzen hasia zen.

Amona Leireren ondoan ipini eta, bere esku hezurtsua Leireren sabelean jarrita, kantari hasi zen. Doinua oso errepikakorra zen, eta Leire, bat-batean, sorginduta bezala sentitu zen. Doinua barruraino sartzen zitzaiola sumatu zuen; amona haren ahotsak indar izugarria zuen, nonbait. Eta eskua, berriz, lasaigarri bikaina izan zen bere oinazeentzako. Amonak, orduan, kantatzeari utzi eta arnasa sakon hartzen hasi zen, haren sabel biluzia ere puzten eta hustutzen zelarik, eta Leire, konturatu gabe, gauza bera egiten ari zela ohartu zen: arnasa hartu, arnasa bota, arnasa hartu, arnasa bota... Azkenetarako, Leire arnasketan guztiz murgildu zen; amonaren indar eta sosegua senti zitzakeen, eta barruko indarra ere bai, eta bere haurtxoa eta haren ateratzeko gogoak ere sentitu zituen.

Leirek gora begiratu eta egunaren azkeneko kolore ederrak ikusi zituen; bere gaineko hostoen kulunka gozoa eta haize fina ere sentitu zuen, eta bere alu zabaldua ere bai, eta plazera... Orduan, plazer bitxi bat sentitu zuen: haurraren burua sentitu zuen, alua igarotzen ari zelarik. Leire pozez txoratzen sentitu zen, bizitzarekin mozkortuta... Amona, otsoa, basoa, bera, haurra... dena senti zezakeen, eta deus gutxi zekiela sentitu zuen, eta dena momentu hori baino ez zela jakin zuen.

Haurra kanpoan zegoen, baina ez zuen negarrik egin. Leirek bai, ordea, negar asko egin zuen, amonak besoetan haur eder hura ipini zionean... besoetan zuela begietara begiratu zionean... laztantzen zuen bitartean.

Nor zara zu, txikitxo? Nire alaba maitea! esan zion alaba jaio berriari. Bizitzaren handitasunarekin umilduta eta soseguz gainezka sentitzen zen. Ezin zuen gertatu berri zena sinets. Ordu laurden lehenago amesgaizto bat zena inoiz bizi izandako unerik zoragarriena bihurtu zen. Hor zegoen bera alabarekin, oraindik, zilbor-hes-tearekin lotuta, bat eta bakarra ziren. Eta oraindik senti zitzakeen plazera eta indarra sabelean eta aluan. Alaba bularrean jarri eta gogoz tiraka hasi zen.

Amonak, orduan, musu bat eman zion Leireri kopetan eta beste bat haren alabari. Gero, basoan barneratu zen, eta otsoa haren atzetik.

—Itxoin! Nor zara zu? Itxoin!

Baina amona ez zen gelditu eta, bat-batean, Leireren begi-bistatik galdu zen. Leireri azken gertakari horiek, zuhaitza errepide aurrean azaldu eta gero gertatutakoak, amets bat baino ez zirela iruditzen zitzaion. *Benetan amona bat azaldu al da hemen? Eta otsoa?* Ez zekien zer pentsatu, baina alaba besoetan zeukan eta gorputzaren poza ere bai. Amona benetakoa izan edo ez, eskerrak eman behar zizkiola pentsatu zuen.

—Eskerrik asko! —oihukatu zuen, orduan, ahal bezala.

Iluntasuna hedatzen ari zen. Leirek hotza sentitzen zuen eta, orduan, bere senarra azaldu zen, ikaratuta. Bere emaztearen irribarrea ikustean, ordea, guztiz lasaitu zen eta, haren besoetan haurtxoa ikustean, asko poztu zen.

Gerlari Handia

Ane Etxabe Usandizaga

Gerlari gaztea lurrean etzan zen, zelaian, belar goxoaren gainean. Batzuek uste zutenaren kontra, gerlaririk indartsuenek ere behar izaten zuten atsedena eta gerlari hark bazekien hori. Abenturazalea zen izatez eta, handietan handienek bezala, bazuen konpainia fidel eta leiala. Belarri bat jasota, kuriositatez begiratzen zion tigreak jabeari. Hura ez zen edonolako animalia, izugarrizko tigretzarra zen; haren bibote finek eta atzapar zorrotzek behin baino gehiagotan lagundu zioten gerlariari egoera zail batetik edo bestetik irteten. Momentu hartan, ordea, lasai zeuden biak; bai animalia eta baita gizakia ere.

Gora begira zegoela, munstro haietakoren bat ikusi zuela iruditu zitzaion. Begiak uzkurtu, eskuekin aurpegia babestu eta baieztatu egin zuen: lainoen artetik agertu berria zen dragoi erraldoi haietako bat. Beti bezain handi, beti bezain lasai, beti bezain urrun. Egunen batean, dragoi haietakoren bat ehizatuko zuen gerlariak. Baina ez zen inozoa; bazekien, momentuz behintzat, ez zuela inolako aukerarik.

Metalezko dragoiak hegaldi lasai eta patxadatsuarekin jarraitu zuen, behera begiratu gabe, ezerk kezkatuko ez balu bezala. Bi hego zabal zituen, haiek ere metalezkoak, eta puntan amaitutako isatsa. Sudurretik zerion kezko marra antzematen zen zeruan.

Harri txiki bat hartu eta gorantz bota zuen. Ez

zeukan dragoia jotzeko esperantzarik; mugimendu sinboliko bat izan zen, munstroari argi gera zerion zein ziren bere asmoak. Harriak lurra jo zuenean, ordea, bi lagun ausarten sorpresarako, beren neurriko etsai bat aireratu zen hegoak astinduz, bi gerlarien presentziaz konturatu ez eta harriak izutu izan balu bezala. Naturala denez, tigrea izan zen salto egiten aurrena, aireko munstrotxo hegalariaen atzetik. Tigrearen ondotik, baina, gizakia altxatu zen, munstrotxo hura bere ezpatarekin akabatzeko asmo irmoarekin.

Lehia bizia sortu zen orduan: munstrotxo hegalaria ez zuen amore eman nahi eta hegaldi baldarrak egiten hasi zen. Tigreak, ordea, bazuen salto ikaragarriak egiteko gaitasuna eta gerlariaren buru argi eta zorrotza, estrategiak eta teknikak pentsatzen ari zen ordurako.

Momentu hartan bertan, borroka gori-gori zegoe-nean, eta inork espero gabe, ogro bat agertu zen zelaiaaren ondoko gotorlekutik.

—Utzi tximeletak harrapatzeari eta zatoz bazkaltzera! —oihukatu zuen ogroak, ahots zakarrez.

—Bai ama, bagoaz! —erantzun zion gerlariak eta, tigrearri begira, gehitu zuen:

—Goazen, Mixino, itzuliko gara bazkalondoan.

Ezpata zen makila etxe atzeko zelaian utzi eta bazkaltzera joan ziren Mixino eta biak, gerlari handienek egin ohi duten modura.

Akordeoia

Alazne Arruti

Bikote bat sartu da bagoian. Gizonak akordeoi bat dakar gurpildun motxilan. Bertatik zintzilik soka beltz batez lotuta darama aulkitxo zuri bat eta irribarre ederreko emakume bati eskutik helduta doa. Ate ondoko eserlekuak hartu berri ditut aurreko geltokian, maleta lurrean etzan eta hormaren kontra eseri naiz, ondoko eserlekuan motxila astuna utzita. Gainezka doa trena. Nire aurreko aulkia hartzea erabaki du gizonak eta emakumeak ez du nire motxilak erdizka betetzen duen aulki bakarra hartu beste aukerarik izan. Ordenagailuan ikusten ari nintzena itxi eta lekua egiten saiatu naiz hankaz gora dudana gelara sartu berri denaren aurrean banengo bezala, erabat lotsatuta. Inoiz gustatu ez zaizkidan urre kolorezko belarritakoak daramatza eta buruarekin keinu egin dit, eskerrak ematen bezala. Ile hori tindatu berria argiegia da aukeran bere azal kolorearentzat eta larruzko txaketa marroixkaren lepotik gepardo koloreko zapia ageri zaio. Benetan lurrin sarkorra zabaltzen du.

Gizona begira ari zait, barrez. Andreari begiratzen dio eta hark jarraian niri. Errumanieraz ari direla iruditu zait; ez diet ezer ulertzen eta, horretarako arrazoirik ez dudana arren, larrituta topatu dut neure burua. Nik ere txistearen konplize izan nahi nuke. Ez dakit zer egin eta beren begiradak are eta sakonagoak dirudite. Halako batean inguruari begira imintzio xelebreak eginez zuzendu zaizkit, lasaitu nadin edo: *Nora doa jende guzti hau?* Nik, eguerdia izanda ohikoa dela erantzun diet, etxera heltzeko desiratzen gaudela. Aski izan da geure arteko trantzea lasai dadin: eserlekuan eroso jarri eta elkarrekin egin dugu barre. Bikote bitxia osatzen dute.

Begirada pantailara itzuli eta dokumentu hau zabaldu dut, idazten hasi bezain pronto emakumeak ulertu ez dudana zerbait galdegin didanean. Erremerrea dirudi, ahoskera berezia du eta kosta egiten zait konprenitzea; baina ez du etsi eta, buruarekin kanpoaldea seinalatuz, ea hotzik ez dudana ulertu diot azkenean. Sorbaldak bistan daramatzat. Nik ezetz, sartu berriak direla eta barruan ez duela batere hotzik egiten erantzun diot, eta bakoitza bere baitara itzuli da.

Isiltasun deserosoak gutxi iraun du. Ea nongoa naizen jakin nahi dute. Gizona, labezomorro baten antzera, beltzez jantzita dago goitik behera eta akordeoiaren motxila soinean daraman eta aski betetzen duen txamarra baino gastatuagoa dago. Oraindik zapatak zaintzen jarraitzen duen pertsona bakanetakoa izango da: dir-dir egiten dute lur grisaren gainean gurutzatu eta kulunka. Aurpegi ilunean duen garatxoari begira nengoela erantzun diet ni ere etxerantz noala. Baina non aurkitzen den ulertu ez didatenez, alboko herriak izendatzen hasi naiz eta, Orio aditzean, buruarekin baietz egin didate, ezagutzen dutela. Hondartza, hondartza duela; eta polit askoa, gainera! Urte osoan hala mantenduko balitz...

Nekeza da asteari bukaera ematea. Korrika irten naiz unibertsitatetik, motxila soinean, aurrez batutako maleta eta aurreko ikasgaiaren inguruko hausnarrez gainezka aldapan behera. Tren geltokiko eskaileretara heldu eta zenbat gorroto ditudan oroitu dut. Baina ostirala da eta, pare bat orduren buruan kuadrillarekin pintxo-potean egongo naizenez, indarrak hartu eta aise igo ditut.

Astero nabil berdin. Trenean orduak maiz luze egiten zaizkit bakarrik noanean. Gaur, ordea, ohartzetarako, Deba atzean utzi eta Itziarko itsaslabar ederrari begira nago bikote hiztuna bidelagun. Ez dakit inoiz pentsatu ote duzuen, akaso nire kezka izango da, baina lehen ez ote zen gehiago hitz egiten ezezagunekin? Trenean asper-asper eginda gaudela, alboan eseri berri denari hitz egitea kosta egiten da. Erotzat hartuko ote gaituztenaren beldurrez? Edota beharrik ez dugula uste dugulako, agian? Bai, badakit, inkomunikazioaren aroan gaude. Nik ere poltsikoan dut mugikor santua eta mezuak pilatzen ari zaizkidala nabari dezaket. Baina, aizue, ez dakizue gaurkoan zeinen gustura noan kontu-kontari.

Ordenagailuan idazten jarraitu dut eta, curioso, begira sentitu dut Luix. Nahiko azkar idazten dudalako, agian. Ez daki, ordea, hamar tekla-kolpetatik pare batean kale egiten dudala eta behin eta berriz zuzendu behar izaten dudala presaka idatzitakoa. Baina ez dio

axola. Klaseko lanak egiten nabilela esan eta aurpegian interes gehiago piztu zaiola esango nuke.

Azalpen gehiago nahi dutela sumatu dezaket, baina misterioa gorde izan nahi dut une batez. Buruan erantzun nahi nukeena prestatzen hasi naiz, erdaraz esan beharrekoa aurretik itzuli behar izaten baitut gehienetan. Ikasketez galdetu dit; kontatzeko ea benetan zertan nabilen. *Unibertsitatean, ingeniaria izateko ikasten nabil* aditu eta espero ez nuen txundidura piztu zaie. Elkarrizketa utzi ez duen baina aspaldi mututu den andreak gurasoek maiz esaten didaten berbera esan dit: orain egiten ari naizena niretzat izango dela eta jarraitzeko gogotsu.

Barrezka hasi naiz, baina gutxi falta izan zait nire kezka zein pena guztiak kontatzen hasteko. Agian, zerbait sumatu dute eta, ohartzerako, serio demonio hitz egiten hasiak garela konturatu naiz: *Niri ere buruko min ugari ematen dizkit akordeoi honek. Ikasle bizitza gogorra da oso eta ez duzu bide errazena aukeratu* —eskaten diguten maila izan beharko lukeenaren erdia dela jakingo balu...—. *Ikasketak amaitu ostean, ziurrenik ez duzu lanik topatuko, baina lasai. Bizitza honetan, dirua nahi duenak, eraikuntzaren munduan sartu behar du eta ez dago guztientzat aski lan* —eskuekin lurra zulatzen hasia da—. *Musikarekin ere gauza bera gertatzen da. Denbora asko eskaini behar zaio.*

Jendeak gustura egiten du dantza, baina gehienek batere dirurik bota gabe, txapela ikusi bezain pronto, martxa. Ez nau lasaitu; baina Zarautzera heltzearekin dagoeneko eta ondoan burrunba galanta sortzen ari den ume kuadrillarekin doan eta gu baino pazientzia gehiago duen irakasleak hurrengo geltokian irten behar dutela esan digu eta eskerrak.

Laster helduko naiz etxera eta leihotik begira hasi naiz gogoz. Gauzak batzen hasi eta isiltasuna nagusitu da gure artean. Badakigu zer datorren hurrena. Zutitu egin naiz, maleta hartu eta aterantz abiatu. Baina, beti bezala, berandu eta trastez gainezka nabilenez, ez dit ate ondoko zutabeari heltzeko astirik eman eta ohiko dantzaldi traketsa eskaini dut balantzaka. Kostata galtzen da baldar fama. Azken barre saioa egin dugu elkar agurtu eta kanpora irten aurretik. Leihotik agurtzen ari zaizkit eta bidaia ona izan dezatela opatu diet. Berririo elkar ikustea gustatuko litzaidake, haien berri izatea eta akordeoiaz gozatzea. Nik ere gozatu eta dantza egin egiten baititut, baina txikitan gurasoei eskupekoa eskatu eta korrika txapela heltzen zuenari aurpegira begiratu gabe nire postura itzultzen nintzeneko garaia iragan dira. Lasai egin ohi dut ihes poltsikoan xahutzeko adina diru ez dudanaren ustetan. Tuntun alena.

Ospea lortzeko bidea

Arantzazu Otaegi

Pertsona ospetsu bihurtu nahi dut. Bai, norbait eza-guna. Ez nire familia, lagun edo lankideen artean. Hori... banaiz dagoeneko. Hemendik kanpo. Mundu osoan *Aiako Aran* izena ezagutu dezatela nahi dut. Bale... pasatu naiz. Europan... Ongi da. Euskal Herri osoan. Horixe. Famatu bihurtu nahi dut Euskal Herrian.

Izan ere, Aia herri txikitxo honek zenbat ospetsu eman ditu? Hemen bizitzen daramadan bederatzi urte hauetan, famatu-famatu... Inor ere ez, nik dakidala. Eta atzera egiten badugu... ez dakit... Burura datorkidan bakarra *Aiako Txikito* da, aitak kontatu zidalako hona

bizitzera etorri nintzenean. Eta kito.

Eta herri honek izen ezagunak merezi ditu. *Goazen Aiara ea halako hori ikusten dugun! Aia bisitatuko dugu, ikustera non bizi den Aiako... Aiako... Aiako Aran!* Turismoa suspertzeko balioko du! Beraz, ni famatu bihurtzea onuragarria izango da niretzat eta Iturriozena, Jauregi, Kanua eta Aize Berri tabernentzat. Eta Mikel harakinarentzat ere bai. Hortaz... aurrera, bada!

Baina, nola? Zer egin behar dut nik halako ospea lortzeko?

Aiako Txikito bezala, kirolean saiatu naiteke. Euskal Herrian pertsona ezagunenak kirolariak dira: futbolariak,

pilotariak, futbolariak, arraunlariak, futbolariak, korrikalariren bat edo beste eta futbolariak. Eta mutilak. Nik futbolaz... paso. Eta neska naiz. Zail samarra. Gainera, lehentxeago hasi behar nuen kirola praktikatzen urrutira heltzeko. Une honetan korrika pixka bat egiten dut (korrika eta ez *running*, ez bainaiz modernoa), baina pixka-pixka bat. Behobia-Donostia egitera ere ez naiz heltzen. Eta berriki hasi naiz Pilates praktikatzen. Baina oraindik urruti nago *Pilateseko erregin* bihurtzeko! Gainera, ba al dago *Pilateseko erreginik*?

Kirolari bihurtzea zaila! Orduan...

Jendeak politikariak ere ezagutzen ditu. Sar nadila politika munduan! Alderdi politiko batean sartuko naiz, eta bultzadaxo bat hemendik, ukondokada bat hortik, gora joango naiz poliki-poliki, egunkarietan eta azaldu arte. Pentsa dezagun! Aian indartsu daudenak pare bat dira. Eta... puf, ez bata eta ez bestea! Izan ere, politikan sartzeko, guztiz bat etorri beharko nintzateke aukeratzen dudan alderdiarekin. Hori da logikoa, koherenteena alderdi politiko guztietan... PSOEn izan ezik. Eta erabat ados egon... inorekin ez.

Ate hau ere, itxita. Beraz...

Inportantea den zerbait egin beharko nuke, pare bat egunetan egunkari guztietan lehen orrira eramango nauen ekintzaren bat. Nire baloreekin bat etorriko den zerbait. Udazkenean gaude. Badakit! Ehizaren aurkako Juana de Arco bihurtuko naiz. Goizero tiroka eta tiroka dabiltzan txoritxo-hiltzaile horiengana joango naiz, eskopetak hartu eta birziklatzera botako ditut banan-banan. (Bihotzak eskatzen dit eskopetak hartu eta beren potroekin tiro-praktikak egitea, baina hori ez da politikoki zuzena, ezta?). Naturaren alde, animaliak salbatu, birziklatze tasa handitu... onura itzelak lortuko nituzke! Baina horrek arazotxo bat dauka. Ehiztariekin sartzen banaiz, herritik botako nautela. Beste norabait joan beharko nintzatekeela bizitzera. Euskal Herrian ezaguna bihurtzearekin batera, herrian pertsona *non grata* izendatuko ninduketelako. Eta nik hemen bizitzen jarraitu nahi dut.

Dena den, ongi pentsatuz gero, gaur egun ez da gauza handirik egin behar ospetsu bihurtzeko. Telebistako programa txatxu horietako batean azaldu eta kito. Hori gehi Lecturas-eko eskusiba eta Entreviu-ko portada titiak dantzan eta egina! Erraz-erraza. Hala ere, bi arazotxo daukat bide hau hautatzeko. Batetik, zer programa? *Gran Hermano*, *Mujeres*, *hombres y viceversa*, *Gu ta gutarrak*... Casting bat pasa behar da eta zu aukeratzeko kristoren frikia izan behar zara! Eta ni arraro samarra banaiz, baina ez hain frikia! Gainera, zer arrai! Programa horiek gorrotatzen ditut! Diedan erdeinua segituan nabaritutako litzaidake eta lehenengo kaleratuko nindukete. Bigarren arazoa: aldizkarietan azaltzekoa. Zer kontatu beharko nuke Lecturas-eko eskusiban? Ez daukat amoranterik, ez naiz kartzelan egon, ez dut banandu nahi, ez dut ezer lapurtu... nire bizitza normalegia da! A, eta titiak erakusteagatik ez lidakete xentimorik emango!

Bideak ixten ari zaizkit nire ametsa betetzeko.

Ongi egiten dakidan zerbaiti heldu behar diot, eta gustatzen zaidanari. Gustuko gauzak egiten errazago lortzen da arrakasta. Eta ospea. Antola ditzagun ideiak eta ospea lortzeko aukerak:

Gustuko gauzak	Aukerak
Senarrarekin goxo-goxo egotea	Batere ez
Semearekin jolastea	Zero
Baratzean aritzea	Ezer ere ez
Lo egitea	Pluf
Idaztea	¿?

Horixe! Idaztea gustatzen zait! Eta ongi egiten dut! Egina! Letrei helduko diet. Mundu mailako ospea ez dut lortuko, baina Euskal Herrian norke ez ditu Asteasuko Bernardo Atxaga edo Alzako Juan Mari Irigoien ezagutzen? Hauxe da bidea! Eta ekin egingo diot! Nola? Literatur lehiaketetara aurkeztuz eta irabaziz. Esate baterako, Orio eta Aiako 23. Literatur Lehiaketarekin hasiko naiz.

Listo!

Naizen desertuan

Josu Galdos

Eta zer egiten dut nik
arrats honetan eta bakar-bakarrik
desertu amaigabe honetan?
Nork ekarri ote nau hona?
nik ez baitut sentitzen
hona etortzeko erabakirik hartu dudarik.

Eta ibiltzen hasten naiz, mantso, oso mantso,
nora jakin gabe.
Argi eta kolore anitzen azalpen miresgarri bat
besterik ez dela zait iduri
basamortu ezezagun hau.

Izarrak badatoz,
isiltasun izugarri bat hedatzen da
eta sartaldetik
desertuko gizon bat azaldu da;
desertuaren isiltasuna baino isiltasun sakonagoa
dakar
eta nik ez dakit nondik ibili den, nora doan,
baina bere isiltasuna atsegin dut,
nire burua ere baretu baitu.

Eseri gara biok, gora begira; tea eskaini dit
eta edan dugu, isilik edan.

Haize gozo-gozo batek
desertuko gizonaren burua harrotu
eta hitz batzuk sortu ditu:

“eta ezin jakin ikusten ditugun izar guztietatik
zeintzuk dauden gau honetan bizirik
eta zeintzuk ziren noizbait hil
hain daudenez urrun...
Ez diren gauzak erakusten dizkigute begiek
eta diren gauzarik sakonenak ezin ikusi...
Hobe izango dugu, beraz,
desertu honetan azaltzen den oro
aintzakotzat ez hartzea
eta gure buru nekatuak
heldu-ezina den orainaren egia bakarrean
umil-umil eta hunkipenik gabe
pausatzea”.

Eta nik ez dut askorik ulertu,
baina nire bihotzak barre egin du
zerbait ulertu balu bezala,
eta ene baitako ur geldiak
aspaldian ez bezala harrotu dira;
eta orain, hemen,
begi nekatu hauetatik
malko gozoak erortzen ari zaizkit,
ene desertu idorra bustiz.

Eta desertuko gizona badoa
eta ni ere banoa,
nire gibeletik
banoa.

Errikotxiako kuadrillari

Bertso berriak Errikotxia bertsozale taldea sortu zutenei jarriak

Iñaki Iturain

Doinua: Xabier Leteren Habanera

1
Bertso giroa herrian
zegoen nahiko etsia,
pixka bat animatzeko
sortu zen Errikotxia.
Izenaren esanahia
omen herriko etxia,
beste batzuentzat, berriz,
omen da herri kotxia.
Bertsozalez osatua,
Oriok duen pitxia,
denetik dago barruan,
behintzat ez dago itxia,
bere onena oraindik
ez dauka erakutsia,
inork ez dit ukatuko
taldea dela bitxia:

2
Jende xelebrea batu
zaio Errikotxiari,
denak bertsozale dira
eta batzuk bertsolari.
Erreparatu bakoitzak
dadukan abizenari,
abizen horren doinuak
dakarren oihartzunari:
Jon Agirre, lehendakari
Salsamendi, pilotari
Inturain, txirrindulari
Uzkudun, boxeolari
Larrañaga, futbolari
Manterola, arraunlari
eta azken aipamena
Sukia obispoari.

3
Gurrutxaga ez dago hor
zerrenda horretan sartuta,
abizenak oihartzunik
batere ez dakarkigu-ta.
Ibai eta Egoitz ere
ez ditugu aipatuta,
bien zigarroen keak
oroimena lausotuta,
izenetik abituta,
biak hitzari lotuta,
ibaia bideratuta,
egoitza aseguraturata,
ibaiarentzat egoitza,
egoitza ibairatuta,
Ez oain ta Ez agirre
ez zaudete, ez, ahaztuta.

4
Futbol, boxeo, pilota...
kuadrilla oso anitza,
denak batzen dituen
euskara, bertsolaritza;
bertsoa lantzen errima,
doinua, neurria, hitza,
herria bertsoz janztea
ezarritako plangintza,
ahal bada pittin bat poztuz
oriotarren bizitza,
euskara hutsez jardutea
horixe dute baldintza,
umorea ta ziria
jendearenganako giltza,
Errikotxia gustura
legoke bertan balitza.

Ibilerak

Alazne Arruti

Moila bazterrean
gizon bat ikusi dut.
Nire aitona izan zitekeen,
baina ez da.
Barandari itsatsita dago
eta ez du
bastoiaren beharrik
zutik irauteko.

Begirada
urrunera luzatu eta
plazatik harantz
bakantzen joan direneko
baporeak zenbatu ditu.
Esku bakarra
atera behar izan du
poltsikotik.

Merkatu eguna da eta
jendea batetik bestera dabil
hara eta hona.
Azpiko arropa,
trapu zahar
zein etxeko zapatillak
non-nahi,
esnatu da plaza.

Eskolatik atera berri den
haurrak
gonapetik tira dio amonari.
Asteburua ez den arren,
ez du galdu esperantza;
gurasorik gabe
gozoki eskea
betidanik samurragoa izan da.

Letxuga, tomate eta tipulek
otar apainetatik
hazten direla dirudite,
baina baratzetik eten eta
harraskan garbitu dituenak
bakarrik daki
zenbat lur eta neke
irensten duten.

Fresko egiten du
sutondotik aldentzean.
Txaketa,
guardasol eta
sudur gorriak
ugaritzen hasi dira,
jendea
etxean babesten.

Kale hutsak izan ohi dira
hotzenak.
Baina herri baten ibilerak
asko du berotzen.

Udaberriko lore

Ainhoa Mateos

Doinua: Begi umelak

Udaberria heltzean
bazterrak, txokoak loratu
barneko hazia ere
sortzeaz dugunaz jabetu.
Ur poltsa hautsi da eta
sabela bilakatu danbor;
iritzi da momentua:
gure txikitxo badator.

Berotze lanak hasteko,
baloiak mugitu aldaka
albo batera, bestera,
zirkularki eta saltaka.
Baina bost minututik behin
hau da gelditzeko beharra,
hutsetik ehunera doa
barneko sufrimendu marra.

Hartu ditzagun trasteak
ordua zaigunez iritsi,
elkar goxo besarkatu,
atea ilusioz itxi.
Donostiara bidean
kopilotu eta gidari
opor bidaia ederrena
egingo dugula nabari.

OTI eta NAN atara
harrerara sartu orduko
eta zaindaria gurekin
mugimen guztien lekuko.
Bosteko zaude, txapeldun,
gertu-gertu dago helmuga;
berrogei aste ondoren,
orain hasten da abentura.

Erditze gelan sartzean
aurkeztu erizain, emagin...
zerbait nahi duzuenean,
botoi zuriari eragin.
Batetik, epidurala
eta, bestetik, oxitozina,
ohean ezin kabituz,
hau da, hau, ipurdiko mina.

Orduak doaz aurrera,
bikotea alboan firme,
animo, muxu, laztanak...
momentu oro erne-erne.
Tarteka begiak itxi,
arnasa hartu eta marru,
bukatzean, Bat gutxiago!
Besoetan dut gutxi barru.

Hamarrera iristean,
ohetikan agudo altxa,
erditze-mahaian eseri
eta sufrimendua, latza.
Gora episotomia,
espatulak eta bisturi...
baina haurra ikustean,
poz malkoak zaizkit isuri.

Eten da zilbor-hestea,
mendekotasuna akabo,
orain amaren bularra,
zure kabi, zure abaro.
Bederatzi hilabetetan
sabelean hartu arren babes,
orain aita eta ama
zuri maitasuna emanaz.

Potoloaren bakardadea

Garazi Urretabizkaia

1

Begira nola joan zitzaidan
nire haurtzaro xaloa:
klasekideentzat beti ni nintzen
“paketea” ta “maloa”,
bihurtzeraino patio erdian
zegoen txorimaloa,
inuzente kokoloa,
boloetako bola...
Telepizzako iragarkiek
kendu ohi zidaten loa.
Potoloaren bakardadea
bakardade potoloa. (BIS)

2

Fina ta ederra arrosa bada,
ni beti izan naiz asuna,
jateko bila auskalo zenbat
gizendu nuen garuna.
Armarioko ate luzetan
ibiltzen nintzen zer suma:
patata zorro astuna,
pizzen borobiltasuna...
Gero sofara joaten ginen
ni ta opil kremaduna,
koska ta koska irentsi nuen
hori zela osasuna. (BIS)

3

Urteak pasa ziren aurrera,
bete nituen hamalau;
hiru otordu, hiru merienda
kapritxoak hogeita lau.
Gorputz irmoa, zango zurrinak
eta kiloak ehun da lau.
Medikuek zenbat arau!
Kirola egin ta jan hau...
Baztertutako sentsazioa,
lorik gabeko zenbat gau!
Bakardadean gizentzen nintzen,
maitasunez nintzen barau. (BIS)

4

Endokrinora zenbat bisita,
tristeziaren amaia,
psikologoan nahastutako
sentimenduen talaia,
sukaldaritzak ikastaroak,
etorkizun ardagaia,
hitzaldietako gaia:
bizi berri baten nahia...
Pausurik pausu, eskurik esku,
bide zuzena, lasaia,
ohartzerako bihurtu nintzen
pertsona argal alaia. (BIS)

5

Era honetan kokatu nuen
bizi berri baten meta,
kirola eginez izerditan blai
bukatzen nuen erreta.
Alde batera utzi nituen
bai bizio, bai apeta:
fuera alkohol, fuera peta,
sofan egoteko beta...
Ongi etorri entsaladak ta
kalorien kontaketa;
bizitza hontan zerbait lortzeko
zerbait egin behar da eta! (BIS)

6

Ta gauzak zenbat aldatu diren
behatuaz urrutira...
Gaur hogeitaz urte, laurogei kilo,
ai, bizitzak zenbat bira!
Astean lautan nahi dudalako
joan ohi naiz mendira,
Kirolak, ze ikusmira!
Egun ezin erretira...
Entsaladaz gain, txokolatea
noizbehinka jaten dut, tira!
Lehen arazo handi zirenak
gaur kapritxo txiki dira. (BIS)